



Izenburua	Hizkuntza normalkuntza gure udalean
Egilea	Danel Bringas Egilior
Data	2012/03/22

aurkibidea

1. Kokapena	03
2. Egoera aldatu nahiean.....	04
3. Etorkizunari begira. Beste bide bat zabaltzen	07

1. Kokapena

Santurtzi Bizkaiko Bilbo Handia eskualdean dago kokatuta. Lezama eta Larrabetzu dira Bilbo Handiko udalerrien artetik euskaldunen portzentaje handienak dituztenak. Barakaldo eta Sestaok, berriz, euskaldunen portzentaje txikienak dituzte. Santurtzi bi hauetatik gertu dago euskaldunen portzentajea: hamar lagunetik bat da euskalduna (%11). Aitzitik, hiru biztanletik bi erdaldun elebakarrak dira (%67).

Biztanleen bilakaerari dagokionez, azken hogeitamar urteotan, biztanle-kopuruak behera egin du eskualdean eta Santurtzin nabarmenagoa izan da, desindustrializazio prozesuak areagotu duelako galera hau ezkerrean.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertuz gero, euskaldunen proportziorik handiena gazteen artean dagoela nabari da: 15 urtetik beherakoen artean euskaldunak ia biztanleriaren erdia dira. 15 eta 30 urte tartean hamar biztanletik lau elebidun hartzaileak dira. Adin horretatik aurrera erdaldun elebakarrak biztanleriaren erdia baino gehiago dira eta 50 urte baino gehiagokoen artean hamarretik bederatzi. Azken hogeitamar urteetan gazteen artean nabari egin du euskaldunen portzentajeak gora. Zenbat eta gazteagoak, hainbat eta euskaldunagoak. Guzti hau ikusita, gure helburuetan eta egitasmoetan aintzat hartzeko datuak direla, argi geratzen da.

Beraz, ikusten diren indarguneak hauexek dira:

- Euskaldunen eta elebidun hartzaileen portzentajea gora doa etengabe.
- Gorakada hau gazteen artean eman da.
- Euskaldunen proportziorik handiena gazteen artean dago: 15 urte beherakoen artean euskaldunak ia biztanleriaren erdia dira.
- D ereduko irakaskuntzaren lehentasuna.

Eta, aldi berean, honako ahuleziak:

- Hiru biztanletik bi erdaldun elebakarrak dira.
- Santurtziko ia biztanle guztiek (%97) gaztelania bakarrik erabiltzen dute etxean.
- Euskaldunen dentsitatea edozein izanda ere, gaztelania da hizkuntza erabilena.

2. Egoera aldatu nahiean

Gaurko gizartearen konplexutasunak zuzeneko eragina du herri-administrazioen jarduera eta antolaketan. Erronkei aurre egiteko ahaleginetan, sail bakoitzak bere bidetik jo ohi du eta, ondorioz, alor desberdinen arteko koordinazioa zail samarra gertatzen da, zeharlerrotasun kontzeptua sarri askotan kolokan delarik.

Euskarari dagokionez, hizkuntza ofizialetako bat denez, administrazio-sail guztiak lotzen dituen zehar lerroetako bat izan behar, ezinbestean. Gure inguruan zail samarra den helburu hori lortu aldera, Santurtziko udalak 2008an abian jarri zuen ekimena da, euskara zekiten udal langileei trebakuntza eskaintzea, sail bakoitzean maizen erabilitako agiriak eta hizkera oinarri hartuta. Horrela, euskaldun "pasi-boak" "eragile" bihurtzea eta euskara, ahalik eta modu naturalean, zerbitzu hizkuntza ere izateko bidea jorratzea.

Guzti hau gauzatzeko, Santurtziko Udalbatzak, 2008ko ekainaren 26an Euskara Biziberritzeko Santurtziko I. Plan Nagusia 2008-2011 eperako (EBPN) eta, horrekin batera, 86/1997 Ebazpenean ezarritakoaren arabera udal administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu zuen, 2008-2012 plangintza aldirako. Hortaz, bi plan dira indarrean Santurtzin, bat udalerrinari dagokiona (prorrogatu egin dena urte batez) eta, bestea, udal administrazioari dagokiona. Era berean, udalak EBPNn erabateko lehentasuna zuen beste tresna oinarritzko bat onartu zuen, Euskararen erabilera sustatu eta arautzeko beharrezkoa zen Udal Araudia, alegia.

EBPNren ezarpen aldiko lehen urte hauetan, lehendik indarrean zeuden egitasmoekin batera, proiektu berri garrantzitsu batzuk abian jarri dira, esaterako, Berbalagun programa (ezkerraldeko potente-ena), Merkataritza eta Euskara (eremu horretan euskararen presentzia areagotzeko), Bertsogintza, etab.

Santurtziko Administrazioan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea zen euskara-planaren helburu nagusia, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza-eskubideei erantzun ahal izateko, eta argi eta garbi izan ditugu landu beharreko ildo nagusiak: herritarrekiko eta beste administrazioekiko harremanak eta barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea. Euskaltegia alde batera utzita Santurtziko Udaleko administrazio-atal guztietan gaztelania da nagusi, batez ere ahozko zereginetan. Atal eta lanpostutan euskara, zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izaten saiatu gara azkenengo 3 urte hauetan; hau da, euskara gaztelania bezalako hizkuntza izatea nahi izan dugu jendearreko harremanetan eta gaztelaniaren maila berean egotea atalaren gainerako zereginetan.

Horrela, euskara-planak era honetan eragin du udalean: 350 langile inguru gara udalean eta horietako herena euskalduna dela esan genezake. Azken 3 urte hauetan 60 inguru egon dira zuzenean erabileran sartuta, hau da, dagokien lanpostuan ezarritako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenak, nahiz lanpostuan 4. hizkuntza eskakizuna ezarrita izanda, 3.a egiaztatuta dutenak. Guztiek ere borondatez planean sartzeari baietza eman zioten. Udal Euskaltegia planean sartu arren, planak ez du bertan eraginik izan, langile guztiak euskaldunak direlako eta bertako harreman guztiak euskarazkotzat jotzen direlako, horrenbestez, ez zen beharrezkoa izan. Beste 50 langile euskaldun, gutxi gora behera, geratu ziren planean parte hartu gabe. Horiek guztiek uko egin zioten hasiera batean euskara planean sartzeari, gehienek lan kontuak tartean, borondatez hala erabakita. Lehenengo bi urteak igaro ondoren, gainerako horiek aukera izan zuten trebakuntza saioak jasotzeko eta, horiekin batera, euren lanpostuei zegokien hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko asmoa zutenek ere.

Aurreko plangintzaldietan euskalduntze prozesua bukatu ez zuten langileei ere euskalduntzea burutzeko laguntza eskaini zitzaizkien eta egiaztatzeko ezintasun nabaria agertzen zutenen kasuak erregulartzeko proposamenak egin ziren. Aldi berean, plangintzaldi osorako egitaraua eratu zen (2008-2012), urte bakoitzeko helburuak eta prozesua ebaluatzeko sistema finkatuz.

Bestalde, normalkuntza honetan aurkitu den beste arazo bat izan da udaletxearen kokapen fisikoa, ez duelako batere laguntzen. Eraikin gutxitan egon beharrean zerbitzuen eta arloen “atomizazio” bat dago herrian zehar eta horrek izagarrizko buruhausteak sortarazten dizkigu komunikazioan zeharlerrotasun horri begira. Gainera, teknikari askoren ustez, euskara ez da izan lehenetsia bat, eskualde erdaldun batean bizi garelako, eta ez diote eman garrantzi handirik. Hauetariko batzuk, urte askotan zehar lan egiteko era aldatu behar izan dute, zeukaten “inertzia” apurtuz. Honengatik “erresistentzia” moduko jarrera bat antzeman izan da arlo eta teknikari batzuren artean, konpontzeke dagoena oraindik.

Erabilera planaren lehenaldizko aldia garatzeari ekin genion, 25 langileri trebatze saioak eskainiaz. Trebatze saioak EBPN idazteko eta erabilera plana bideratzen hasteko kanpoko aholkularitza tekniko erabili genuen, lehen proba modura.

Proiektuok garatzeko ezinbestekoa zen udalerrian dauden eragileen partaidetza, batez ere, udal-administrazioaren alorrekoak. Asmo honi helduta, Santurtziko Udal Euskaltegi estatutu berriak ere onartu zituen Udalbatzak. Estatutuotan zehazten baitziren erakunde horren xedek:

...”2. Era berean, Udal Euskaltegiak, Santurtziko Udalarekin lankidetzan, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko planak gara litzake, hala udalerrian nola udal administrazioan. Udal langileak hizkuntzan trebatzeko lanak eta itzulpenak ere egin litzake, horretarako beharrezko koordinazio mekanismo eta protokoloak ezarriko dira.”...

Bigarren xedeari erreparaturik, Udal Euskaltegiaren partaidetza EBPNren helburu estrategikoen arabera bideratu da. Honakook izan dira, zehatz-mehatz, jorratu beharreko ildoak:

1. Hainbat udal langilek IVAPek ezarritako ordu kreditua agortuta zuten oinarrizko euskalduntze prozesua bukatu barik. Eurentzako propio diseinatutako plana behar izana.
2. Beste zenbaiten euskalduntze prozesua bukatuta egonda ere, ez zuten HE egiaztatzen asmatzen. Hauei azterketa berriaz prestatzen laguntzea (azterketa ereduak landu, mintzamina eta norberaren akatsak garbitu...) azterketak egin baino lehen.
3. Hasiako trebatze saioekin jarraitzeko aukera eta langileentzako mintza praktika taldeak egin sarritasuna eta trinkotasuna ondo finkatuta.

Hasi berria zen 2008-2009 ikasturtean erabilera plana garatzen jarraitu genuen eta, uda baino lehen Udal Euskaltegi irakasleekin izan genuen bileran adierazi genuen legez, zerbitzua eurek emateko proposamena luzatu genien.

Aukera ona zen euskara zerbitzua indartzeko. Hala ere, aukera honetaz baliatzeko, beti ere euskaltegiak bere lanerako behar dituen langilegoa murrizten ez bazen.

Azken urte hauetan, trebakuntza saioetan parte hartu duten langileek Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta zuten, baina euren lana euskaraz egiteko trebezia elebidunak idatzi behar izan dituzte. Langile horiek idazkiak (jakinarazpenak, ebazpenak, fakturak, gutunak...) euskaraz idazten ikasi dute, gero ikasitakoa praktikan jartzeko.

Irakasleak zein “ikasleak”, alde biak, pozik daude egin den lanarekin. Denek esaten dute aurreratu egin dutela, eta batzuen lanaren emaitza ikusgai dago. Izan ere, langileetako batzuk euskaraz egin dezaketen lana euskaraz egiten hasi dira. Horrela, herritarrei bidaltzen zaizkien hainbat gutun, eta agiri langileek eurek idatzi dituzte euskaraz, itzulpen-entresarik tarteko egon ez dela.

Hasieran dagoeneko idatzita eta herritarrei bidalita ziren idazkiak erabiltzen zituzten langileek, horien gainean lan egiteko. Baina, esan bezala, batzuek lehenengo idazki errealak euskaraz idatzi eta herritarrei bidaltzen hasi dira (jakinarazpenak, gutunak, liburutegiko kartelak eta mezu elektronikoak langileek beraiek idazten dituzte...). Beste batzuk hasi dira herritarrek euskaraz artatzen, telefonoz zein ahoz.

Baina, esan bezala, nork bere maila eta bere erritmoa du, eta hori errespetatu egin da. Euren burua euskaraz lan egiteko ziur ikusi dutenean, orduantxe egin dute, ez lehenago.

Gaur egun euskaltegiko teknikari bat dago liberatuta honelako lanak eramaten, irizpide bakar batekin eta ezarritako lankidetzan oinarritzen dira orain itzulpenak, interpretazioak eta trebakuntza. Hala ere, esan beharrekoa da ez dela nahikoa.

Ekintza hauek garatzeko kanpoaldera begira, itzulpenak egin dira, udal euskaltegitik eta “kanpoko sustapena” hori bermatu dugu gazteria, merkataritza, berbalagun, bertsolaritza eskoletan eta beste programen bitartez.

Udal barneko plangintzan 30 langile euskaldundu dugu eta trebakuntzan 50 langile hartu dute parte, helburu nagusi batekin: Euskararen “naturalizazio” edo “normalizazio” bat lortzea zeharlerrotasunaren bitartez, euskarazko zerbitzuen eskaintza areagotuz, etorkizuneko eskari erreal bati erantzuteko. Gogoratu Santurtzin euskaldunen indizea hazten ari dela etengabe, irakaskuntza eta kontzientziarioari esker.

3. Etorbizunari begira. Beste bide bat zabaltzen

Santurtziko Udaleko Euskara Planaren helburuetako bat udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da, eta euskararen erabilera bermatu herritarren hizkuntza eskubideei erantzuna emateko. Horretarako, esan dugunez, azken urte hauetan Udaleko Euskara Arloa eta Euskaltegia elkarlanean aritu gara, eta horretan gabiltza, euskaltegian udal langileak hizkuntzan trebatzeko lanetan.

Udalaren derrigortasun indizeari dagokionez orain arte erabili izan diren errolda-datuak eguneratu beharko dira: orain arte %24,77 izan bada ere, hurrengo planifikazio epean (2012-2017) %31 ingurukoa izango da. Beraz, batetik, euskara jakin beharko duten langile gehiago beharko dira eta, bestetik, jendaurreko lanpostuak ez ezik, bestelako lanpostuak ere euskaldunek bete beharko dituzte, zerbitzuak ere euskaraz bete ahal izateko. Hortaz, arauak berak behartuko du udal administrazioan zeharlerrotasuna aplikatzera: ez baita aski izango "leihatilak" eta gazteriarekin zerikusia duten administrazio atalak euskalduntzea, atal elebidunak ezarri beharko dira gizarte-izaerako ataletan eta, hainbat kasutan, maila orokorreko administrazio-ataletan ere. Honi dagokionez, arlo garrantzizkoak izan daitezke Pertsonal saila, Udal Idazkaritza, Gizarte Ekintza, Obra eta Zerbitzu publikoak, Kirolegia..., izan ere, orain arte "itzalean" egon diren sailetan.

Derrigorrezko lanpostu gehiago zehaztu ez ezik (gutxienez 135), lanpostu horiek bete beharko dira. Horretarako bide bi daude: a) lanpostu horietan dauden langileak euskalduntzea ; b) bete barik dauden lanpostuetarako langile euskaldunak kontratatzea.

Hala ere, ekonomiaren krisiak jota gauden garai honetan, zaila da beharrezkoak diren baliabideak lortzea aipatutako bideetatik, beraz, hirugarren bide bat ere jorratu beharko genuke: udal barruko giza baliabideak erabiltzea: euskalduntzea, trebatzea eta benetako erabilera uztartuz. Horri lotuta, beste kontu bat aipatu behar: zenbait arrazoi medio, beti daude eta egongo dira, arauz ezarritako HE egiaztatzen lortzen ez duten langileak. Hauek ere aktibo bezala erabiltzen asmatu beharko genuke, trebakuntza eta erabilera sustatzeko programen bidez, beharrezkoa den aholkularitza jasota, udal baliabideak erabiliz (esaterako, Udal Euskaltegia).

Esan dugunez, Santurtzin gero eta euskaldun gehiago dago, eskolaren eta, neurri batean, euskaltegien lanaren ondorioz. Udaletik kanpo euskaraz bizitzeko aukerak eskaintze aldera, administrazioaren baitan ezartzen den filosofiari berari heldu beharko lioke udalak eta, euskarazko ekintzak soilik euskara edo kultura sailak antolatu beharrean, kanpora begirako ekintzak programatzen dituzten arlo guztiek gogoan hartu beharko lukete euskara.

Hau guztia zertzeko, garrantzizkoena ez da plan hertsia bat eratzea, baizik eta ahalik eta modu naturalenean praktika sustatzea, baliabide propioak erabiliaz eta pasiboak agente bihurtuz. Trebakuntza saioak bideratuta daudenez, beste aurrerapausu bat emateko ordua heldu dela uste dugu. Hala ere, helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusietako bat euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izatea bermatzea da, eta puntu horretatik oso urrun gaude oraindik.

Jakin badakigu zaila dela ezer lortzea, eta hau ezerezean gera daitekeela langileen inplikazioa izan ezean. Jakin badakigu inplikazioa lortzea ere zaila dela, baina gu prest gaude ahalegina egiteko, krisialdia eta administrazioetako "zeharlerrotasunaren gaitz endemikoa" eduki arren.



Murrieta etorbidea, 6 · 48980 Santurtzi (Bizkaia)
T_ (+34) 94 420 58 00·
danelbringas@santurtzi.net · www.santurtzi.net